KULTURA 2.0 - Prestakuntza-pilulak:
BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA ETA ARTEA MUSIKARAKO aplikazio baliagarriak

2011ko ekaina

Kultura 2.0 ekimenaren barruan, «kultura 2.0 prestakuntza-pilulak» prestatzen eta hedatzen hasi da Kulturaren Euskal Behatokia, EAEn kultura-sektoreko enpresek eta profesionalek egindako eskaerei erantzun zehatza emateko asmoz.

Azken garaian, berariaz arte-munduari bideratutako berrikuntza teknologikoen eskaintza zabala sortu da. Musikaren sektorean, zehazki, mundu hori irauli duten aplikazio eta interfaze interesgarri berriak merkaturatu dira, batez ere gailu mugikorren erabiltzaileei begira. Oraingo honetan, arrakasta handia duten aplikazio batzuk ez ezik, *Music Hack Da*y-n, Bartzelonako Sónarren azken proposamenean, aurkezturiko beste batzuk ere proposatuko dizkizuegu. Guztiontzat interesgarriak izan daitezkeen beste aplikazio batzuen berri baduzue, eskertuko dizuegu horiei buruzko informazioa bidaltzea.

Musika ezagutzeko aplikazioak

Shazam. Musika ezagutu eta identifikatzeko programa bat da. Aplikazio horren bid ez, abesti baten zatia grabatzeko aukera daukagu; gainera, zerbitzari bati konektatu eta hari buruzko informazioa miatu eta behera karga dezakegu; telefonoan gordeta daukagun edozein abesti edo ringtone izan daiteke, edota mugikorreko FM irratian jotzen ari diren abestia.

Aplikazio horren bidez, abesti baten izena eskuratzeko, erabiltzaileak aski du 10 segundoko zati bat grabatzea. Automatikoki, programak seinalearen espektroa prozesatu eta *on line* dagoen datu-baseko espektroarekin alderatuko du.

Erabiltzaileak pantailan ikusi ahal izango ditu abestiaren izenburua, artista, haren diskografiari buruzko datuak, abesti horri lotutako You Tubeko bideoklipak, bai eta zein euskarritan aurki daitekeen ere. Edota, ildo beretik, deskargetarako web-guneetan eskuratzea izango du. Gainera, abesti hori lagunekin partekatu edo Facebook, Twitter eta antzeko gizarte-sareetara gora kargatzeko aukera izango du. Shazam Friends-ek, lagunekin tag-ak partekatzea ahalbidetzen du.

SoundHound. Hori ere musika ezagutzeko aplikazioa da. Aurreko kasuan ez bezala, baina, doako bertsioa eta ordaintzeko bertsioa ditu. Kasu horretan, aplikazioak badaki bereizten noiz abesten dugun ahapetik eta noiz jotzen dugun musika-tresna baten laguntzaz. SoundHoundek «detekzio bizkorra» modua dauka, hau da, 2 segundo nahikoak dira abestia ezagutzeko.

Musika partekatzeko gizarte-sarea

Instagram gizarte-sarean, erabiltzaileek iPhoneko irudiak partekatzeko aukera izateaz gain, hainbat iragazki ezartzeko aukera ere eskaintzen da. Filosofia berberarekin merkaturatu da Soundtracking ere. Haren helburua zera da: une zehatz batean entzuten ari garen abestiari buruzko informazioa partekatzea.

Doako aplikazio horrek bere musiken datu-basean artistaren edo abestiaren araberako bilaketak egitea ahalbidetzen du, edota une horretan jotzen ari den abestia ezagut dezake, bestela (Shazam-ek bezala), geroago informazio hori sare horretako gure historiari eransteko. Horretaz gain, artistaren irudiak hartzen ditu Interneten, gure argitalpenei eransteko.

Audioa banatzeko plataformak

Hainbat plataforma daude; hemen, erabilienak aipatuko ditugu.

SoundCloud. Audioa *on line* banatzeko plataforma bat da; bertan, erabiltzaileek euren musika-proiektuekin parte hartu, proiektu horiek sustatu eta banatu egin ditzakete. Hasieran, musikariei zuzendutako gizarte-sarea izateko sortu zen, eta audio-fitxategiak banatzeko kanalak eskaintzen zitzaizkien erabiltzaileei.

Erreproduzigailu xume bat dauka, audio-fitxategiaren uhinaren forma bistaratzeko; gainera, erabiltzaileek iruzkinak egin eta informazio hori beste pertsona batzuekin partekatzeko aukera daukate. Web-orrietan, gizarte-sareetan eta abarretan txerta daiteke, eta musika ezarri edo kentzen dugun bakoitzean, SoundCloud-eko gure perfila eguneratu egingo da. Horrekin batera, gainera, automatikoki, gure erre produzigailuari lotuta dauden gune guztiak ere eguneratuko dira.

Star My song. Audioa banatzeko beste plataforma bat da; haren bidez, mundu osoko musikariek euren abestien, erritmoen eta aireen demoak bidal ditzakete, gainerako erabiltzaileek balora ditzaten.

Eta berriena…

Music Hack Day-n hogeita hamar aplikazio baino gehiago azaldu dituzte; guztiak ere berritzaileak eta erabilerrazak diren arren, horietariko asko ez dira inoiz merkaturatuko. Hiru azpimarratuko ditugu:

- *Score Following Reloaded (SampleSumo &MuseScore)*. Musikaria jotzen ari den bitartean, partituran zein tokitan dagoen antzematen du, eta behar denean orrialdea pasatzen du.
- *Comment Audiovisualizer (Ricardo Cabello).* Erabiltzaileak aukera dauka abestiaren une zehatz batean iruzkinak txertatzen joateko.
- *Musichackday Sentiment (Eduard Prats)*. Twiterren erabiltzaileen mezuak semantikoki aztertzen ditu, parte-hartzaileen aldartea ezagutzeko.

(MHD wiki.musichackday.org-en wiki-a)

Kultura 2.0ren inguruko zer beste gai aipa genitzake hurrengo prestakuntza-piluletan?
(ahalik eta hobekien zehaztu)

Bidali e-maila honako helbide honetara: kulturabehatokia@ej-gv.es